

## MATERIALISMO HISTERIKOA

## Onena, familiarekin elkartzea



UXUE APAOLAZA LARREA

Irtsi dira, eta daton gozokizko lehen iragarlea ikusi orduko hasi gara marmarka. Bai, urtero berdin, eta urtero gai bera auskalo zein ikuspegitatik. Kontua da urtero gertatzen dela, hutsik egin gabe; urtero, Jesus jaio egiten da. Eta, gogaitzen duena da, dirudie-nez, behingoagatik opariak egin beharra, edo kalean argiak jartzea, haurrak baserritarrez jantzi beharra. Ni, ordea, askoz gehiago gogaitzen naute “festa hauen onena familiarekin elkartzea da” jatorkatoliko guztiek. Niri hori iruditzen zait festa hauen zitalena. Hasten da aulki jokoa, denek nahi dute bat, harreman oso martzianoak elikatzen dira betirako bat izateko bermearen truke. Zenbat erruki onarpen batzuetan. Zenbat erregu isiltasun batzuetan. Eta familia duenak hasperen egingo du gauaren momenturen batean, “momentuz, gutxienez, ez nago...”. Festa itxiak dira, bakoitzak bere zoriontasun intimoa (ez)erakusteko datak, horrela behar ez izateko ez kaleko argi, ez kabalgatako goxoki, ez kaleko zer. Familia baldin badaukazu.


Eta batzuk ulertu ezinik egongo zarete. Zer kasketa da hori. Bakarrrik bazau, baliteke, zeure ardura izatea. Alegia, zorionsua ez bazara, agian, zeure ardura da. Nire kasuan, ziur. Baina zorionsuek ulertzen ez duzuen mundu bat dago hemen behean. Merendoletara gonbidatu ez dituzten asko (eta ez beren erruz, batzuetan bakar horrek du arrazoa, ez beste guztiek), joan ezin dutenak, egin ezin dituztenak... Ba merendola guztiak aldi berean konbokatzen dira. Ez duzu zuri zegokizun, eta ez duzun merendola bakarrik ikusten, beste guztiak ere ikusi behar dituzu. Exhibizio obszenu xamarra da. Eta galdera ez da merendolak gustatzen zaizkizun edo ez. Ez-gustatze batzuek prebentzio kanpainak dirudite gainera. Kontua da urtero galdetu behar diozula zeure buruari ea urte horretan, oraindik, baten batean aulkia gordeko lizuketen. Zu ez egoteak norbaiten merendola edozein ez-merendola baino tristeago bilakatzen duen. Ez dakit, urteren batean egin dezakegu alderantziz: ezkuta daitezela afari/bazkariak konpainian pasako dituztenak, antola dezatela iskanbila ezkutuan (ziur, askok, gehiago gozatuko lukeela, batzuek merendolak lortu ere bai ezkutukoak balira...). Antzez dezagun egun horietan denok bakarrik gaudela. Data horietan bakarrik.

Baina, ei, momentuz, gutxienez, txin-txin, jendez inguratuta, edo ondoan inor gabe, bakarrik egongo garenon alde (baina, hala ere, ni, momentuz, gutxienez, ez nago...). ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## Hezkuntza

Eusko Legebiltzarrean, abenduaren 21ean onartu da soilik EAJ eta PSEk babesten duten Hezkuntza Legea. Oposizio guztiak kontra bozkatu du. Legebiltzar atarian, Euskal Eskola Publikoaz Harrok eta Euskal Herrian Euskarazek protestak egin dituzte.

## Langile borroka

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, sektore publikoko 150.000 langile deitu zituzten grebara abenduaren 19an. Aurrekontuei begira, zerbitzu publikoak, soldatak eta enplegua hemen adosteko eskatu dute ELA, LAB, CCOO, Steillas, SATSE eta ESK-k.

## Palestina

Palestinaren alde egiteko plataforma berria aurkeztu dute Iruñean: “Yala Nafarroa Palestinarekin”. Hainbat eragile barnebiltzen ditu eta manifestazioa deitu dute abenduaren 30erako, “Geldi dezagun Palestinan egiten ari diren genozidioa” goiburupean.